



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko maiatzaren 22a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren politikari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako jarduketan plangintza egin dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiltegi txikien eta nekazaritzako elikagaien artisau-jardueren biziraupena bermatzeko zenbait neurri har ditzan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nafarren erabakitzeko eskubidea aitortzeko. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Espainiako Konstituzioko laugarren xedapen iragankorra indargabetze aldera talde popularrak Diputatuen Kongresuan aurkeztuko duen parlamentu-ekimen bati buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Gobernuaren ordezkaritza ofizialak New Yorkera egiten duen bidaiari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (9. or.).
- Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Frantziako Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Elgorriagako bainuetxeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroaren esportazioak murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren politikari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren politikari aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamendua-ren 179. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren politikari buruzko honako jabeldura hau tramita dadin eskatu du.

Departamentuaren egoerak ez du bide ematen, gure ustez, ez herritarren beharrianak asetzeko ez foru legeen aplikazioz eman behar dituen zerbitzuak emateko.

Horrek kalte egiten die, argi eta garbi, herritarrei eta interes orokorrari zenbait arlotan, hirigintza arloko planeamendua eta kudeaketa, lurzoru ez urbanizagarriaren erabileraren kudeaketa eta ikuskaritza, ingurumena eta etxebizitza kasu.

Horri gehitzen badiogu administrazioak, zenbaitetan, isiltasuna erabiliz jardun duela eta zerbitzuak kanpora atera direla, kezka sortzen da, eta ondorioz jabeldura hau aurkeztu beharra dugu.

Horregatik guztiagatik, sozialisten parlamentu-taldeak honako jabeldura haur aurkeztu dugu, Nafarroako Gobernuako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ondokoak azal ditzan:

Departamentuak funtzionamenduari, eskumenen kudeaketari eta langileei begira zer politika darabilen, zer neurri hartuko dituen, egoerari zer irtenbide emanen dion, zer plangintza aurreikusi duen eta zer baliabide esleituko dituen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako jarduketan plangintza egin dezan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako jarduketan plangintza egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Lizarrako García Orcoyen Ospitalea funtsezko azpiegitura bat da, Nafarroako eremu oso bati zerbitzu ematen diona eta herritarrei bide eman

behar diona osasun arloko zerbitzu azkar eta kalitatezkoa eskuratzeko.

Osasun Departamentuak zerbitzua handitu eta hobetze aldera dituen aurreikuspenei buruz galde-tu zuen parlamentu-talde honek, eta departamentuak erantzun zuen "eskaintzen diren zerbitzu eta espezialitateak egokiak direla".

Bistakoa da, halere, García Orcoyen Ospitalean eskua sartu eta inbertitu beharra dagoela, zerbitzua nabarmen hobetu daitekeelako eta herritarren kezka gero eta gehiago direlako.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lizarrako García Orcoyen Ospitalerako jarduketan plangintza egin dezan. Bertan, ondokoak jasoko ditu:

– Espezialitateen zerbitzuaren azterketa eta zerbitzu berrien premia.

– Langileen kontratuak zertan diren eta langileen egonkortasuna lortzeko ekintzak.

– Azpiegituren arloko beharrezko azterketa eta espazio fisikoaren plangintza.

– Itxaronzerrendak eta gaixoak Calahorrako Ospitalera bideratzea.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiltegi txikien eta nekazaritzako elikagaien artisau-jardueren biziraupena bermatzeko zenbait neurri har ditzan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hiltegi txikien eta nekazaritzako elikagaien artisau-jardueren biziraupena bermatzeko zenbait neurri har ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

Europako araudiak 2005eko abenduaren 5ean ezarri zuen hiltegiak egokitu beharra dutela eta egokitze epea 2006an bukatzen dela. Araudi

horrek, bada, arriskuan jartzen ditu Nafarroako landa eremuetako hiltegi txikiak, zatikatzeko gelak, nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak eta are harategiak ere.

Errealitate horrek orobat jartzen du arriskuan ekonomia aldetik behartsuak diren eremu horietan dauden ekonomia eta zerbitzu jardura apurretarik bat.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina-ko malgutasunez eta Europako araudiak ezarritakoari jarraikiz aplikatu dezan jardura horiek gure erkidegoan egokitzea.

2. Legebiltzar honek Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren laguntzak eman ditzan jardunean jarraitu ahal dezaten eta Europako araudira egokitu daitezten hiltegi, zatikatzeko gela, nekazaritzako elikagaien artisau-enpresa edo harategiak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoak dituen eskumenak baliatuta beharrezkoa den araudia taxutu dezan Nafarroako landa eremuetako sektore sozioekonomiko hori berariaz arautu, sustatu eta aldeztarren.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nafarren erabakitzeko eskubidea aitortzen.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da nafarren erabakitzeko eskubidea aitortzen."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Mahaian, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioak:

ETAk su-etena eman izanak sortu duen egoera politiko berritik heldu den eztabaida politiko, instituzional eta herritarren arteko ezinbestekoa egiten du alderdi politikoek ez ezik erakundeek eta, oro har, herritarrek ere nork bere iritzia demokratikoa azal dezan nafarren erabakitzeko eskubideari eta eskubide hori garatzeari eta benetan baliatze-ari buruz.

Foru Hobetzeak ere gaurkotzea behar du, gizon eta emakume nafarren erabakitzeko ahal-

mena islatu eta garatuko duen gaurkotzea hain zuzen; izan ere, herriari zuzenean kontsulta egin gabe sartu zen indarrean, eta eduki askotan zaharkiturik eta egoerak gaiturik gelditu da.

Nafarren erabakitzeko ahalmena aldarrikatzea da, hain zuzen ere, immobilistek eta herri kontsultarik gabeko abentura politikoa bilatzen dutenei eman beharreko erantzun demokratikoa.

Zenbait esamoldek –"trukerako txanpon", "eredu politiko gotortzea" edo "printzipioen alde-zintasuna" kasu– ezin dute lehentasun demokratikoa izan nafarrek adierazitako borondatearen aldean. Nafarroa, entitate politikoa den aldetik, gizon eta emakume nafarrek erabakitzen dutena izanen da, eta Nafarroa ezin da egon nafarrek demokratikoki erabakitzen dutenaren gainetik, ezta borondate hori albo batera utzita ere.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak nafarrek beren estatusari eta etorkizun politikoari buruz erabakitzeko eskubidea dutela aitortzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gain har dezan bere esparruan herri kontsultak deitu eta egiteko eskumena, beharrezkoa baldin bada eskumena eskuz aldatzeko prozesua egin ondotik.

3. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du, nafarren borondate demokratikoa ordezkatzeko erakundea den aldetik, nafarren erabakitzeko eskubidea benetan bete dadila erabaki duela.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, Espainiako Konstituzioko laugarren xedapen iragankorra indargabetze aldera talde popularrak Diputatuen Kongresuan aurkeztuko duen parlamentu-ekimen bati buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Espainiako Konstituzioko laugarren xedapen iragankorra indargabetze aldera talde popularrak Diputatuen Kongresuan aurkeztuko duen parlamentu-ekimen bati buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Taberna Monzonek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Diputatuen Kongresuan talde popularreko eleuduna den Eduardo Zaplanak, jendaurreko agerraldian, Espainiako Konstituzioko laugarren xedapen iragankorra indargabetze aldera talde popularrak aurkeztutako parlamentu-ekimen baten berri eman zuen. Orain arte esandakoa ez da berria, baizik eta Diputatuen Kongresuan talde popularrak egin ohi duena. Dena dela, gauza gehiago ere iragarri zuen, hala nola: “.. kongresuan izapideak egin baino lehen, prozedura Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dela erabaki dugu...” Nafarroako Gobernuaren ekimen baten bidez. Hori harritzekoa da, kontuan izanik talde popularra ez dagoela ez Nafarroako Parlamentuan ez Gobernuan.

Hori dela-eta, galdera hau aurkeztu dut:

– Zer informazio fidagarri duzu gai horri buruz eta zer deritzozu Zaplanaren prozedurari?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren enplegurako laguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Denbora gutxi barru, UGT eta CCOO sindikatuek, CEOEk eta Estatuko Gobernuak lan merkatuaren erreformari buruz lortu duten akordioa sinatuko dute.

Erreforma horrek hainbat neurritan eragin zuzena izanen du; horien artean, aipatu behar dira 33 eguneko kalteordaina izanen duten kontratuak, eta, halaber, hasieratik langileak finako kontratatze-ko edo aldi baterako langileak finako egiteko helburua duten hobariak.

Hobari horiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak enplegua sendoago sustatuko duten jarduerak bultzatzeko aukera du; hori bai, erreforma

horrek kendu dizkigun enpleguarekin zuzen zerkusia duten eskumenei uko egin gabe.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehena. Zein laguntza ematen zaio enpleguari, zein laguntza ematen da kontratu mugagabeak sustatzeko, zein laguntza ematen zaie enpresei eta zenbateko laguntza ematen du Nafarroako Gobernuak honako kasuetan:

– Sei hilabete baino gehiago langabe egon diren gazteak.

– 45 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

– Emakumezkoak.

– Gizarte-bazterketa jasaten duten kolektiboak.

Bigarrena. 2004., 2005. urteetan eta aurreko laguntza horien onuradun izan diren kontratuen datuak.

Hirugarrena. III. Enplegu Planean, 77. orrialdean, enplegua sustatzeko ezarritako aurrekontuari dagokionez, ondokoa jakin nahi dugu:

– Betetze mailari buruzko informazio xehea eta orain arte zein kontzeptutan bete den enplegua sustatzeko kontusailetan (enplegurako eta inbertsioetarako dirulaguntzak, kenkari fiskalak eta sustatzeko jarduerak)

Iruñean, 2006ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Gobernuaren ordezkariak New Yorkera eginen duen bidaiari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Gobernuaren ordezkariak ofizialak New Yorkera eginen duen bidaiari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Parlamentari honek prentsaren bidez jakin ahal izan duenez, Nafarroako ordezkariak ofizial batek New Yorkera egin behar du bidaia, ustez, Nafarro-

ako irudia Amerikako Estatu Batuetan sustatzeko; horien artean, Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakaria, eta Yolanda Barcina, Iruñeko alkatea joanen dira.

Horri buruz, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

– Zein dira aurreikusitako egutegia eta agenda?

Zein dira egin beharreko kudeaketak, harremanak eta bilerak? Zer ekitalditan hartu behar du parte aipatu ordezkariak?

– Zein dira bidaiaren lortu nahi diren helburuak?

– Nor dira ordezkariak? Eta horien artean, zenbat joanen dira Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren kargura?

Zein da bidaiaren aurrekontua zehaztua eta xehekatua? Zer kontusailaren kontura ordainduko da?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok jaunak egindako galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den apirilaren 7an, Lehendakariak, Justizia eta Barne kontseilariak parlamentari honek egindako galdera bati erantzuna eman zion; galderaren bidez honakoak jakin nahi ziren: Zergatik ebazten dira sistematikoki epea kanpo Nafarroako

Administrazio Auzitegian aurkezturiko gora jotzeko errekursoak? Neurri zehatzen bat ezarri al da egoera horren arrazoiak aurkitzeko? Hala bada, zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak gora jotzeko errekursoen tramitazio egokia bermatzeko eta herritarrek administrazioak espresuki emandako ebazpena legez ezarritako epean lortzeko duten eskubidea errespetatzeko?

Aipatu erantzunean ez dira zehazten ebazpenetan ematen diren atzerapenen arrazoiak ezta hori konpontzeko neurriak zein diren ere; horretaz gain, kontuan izanik Administrazio Auzitegia errekursoak azkar ebazteko sortutako organoa dela –Nafarroako organo berezia eta foru erregimenari lotua– ondoko galdera hauei eman behar zaie erantzuna:

Duela bi urte arte, gutxi gorabehera, Administrazio Auzitegiari atxikitako hiru legelari zeuden trafikoari buruzko errekursoak ebazten laguntzeko; egun, ordea, aipatu erakundeko kideek ez dute

laguntza hori. Aztertu al da egoera berri horrek espedienteen pilaketan eta ebazpenen atzerapean izan dezakeen eragina? Aurreikuspenik egin al da Administrazio Auzitegian laguntza emanen duten legelariak berriro kontratatzeko?

Administrazio Auzitegiko idazkaritzan, errekursoen kopurua langileen kopurua baino gehiago igo da; horretaz gain, erakundeko langileen etengabeko mugikortasuna aipatu behar da. Aztertu al da egoera horiek izan dezaketen eragina? Horri buruzko aurreikuspenik egin al da?

Aztertu al da Nafarroako Administrazio Auzitegian errekursoak epe barruan ebaztea eta beharrezkoak diren prozedurazko hobekuntzak identifikatzea eta abian jartzea ahalbidetuko dituen kalitatea kontrolatzeko tresnaren bat, edo kalitatea ziurtatuko duen agiri bat, ezartzeko aukera?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 11n

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaien:

Ikasleak ikastetxeetan matrikulatzeko epea amaitu berri da.

Zoritxarrez, hautatutako ikastetxeetan matrikulatzerik izan ez duten eta, ondorioz, bizi diren ingurutik kanpora joan beharko diren ikasleei buruzko datuak ezagutu ditugu.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena. Hautatutako ikastetxean matrikulatzerik izan ez duten ikasleen kopurua, hizkuntza ereduaren, udalerraren eta auzoaren arabera zehazturik.

Bigarrena. Hautatutako ikastetxean lekurik ez izateagatik bizi diren ingurutik kanpora joan behar izan diren ikasleen kopurua, hizkuntza ereduaren, udalerraren eta auzoaren arabera zehazturik.

Hirugarrena. Hizkuntza eredu zehatz bat hautatzeagatik bizi diren ingurutik kanpora joan behar duten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen kopurua, udalerraren, hizkuntza ereduaren eta ikastetxearen arabera zehazturik.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko gastuei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1999. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuak hainbat jarduketa egin ditu San Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldi duinak eta bere garrantziaren neurrikoak antolatzeko, eta, hori dela eta, Xabierko ingurua behar bezala hornitu du, ez soilik urte horretarako, etorkizunerako baizik. Horren ondorioz, Xabier kultura eta turismo gune bilakatu da, Nafarroaren erakusleihu bat Espainiaren eta munduaren aurrean.

Harrezkero, Nafarroako Gobernuak ahalegin handia egin du 2006. urte honetan Xabierren azpiegitura egokiak egon daitezen, jasoko dituen hainbat eta hainbat bisitariri –milioi bat, kalkuluen arabera– arreta egokia emateko.

Azpiegituren arloan, Nafarroako Gobernuak ondoko jarduketak egin ditu, Jesusen Lagundiarekin eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzarekin lanki-

detzan: Xabierko Gaztelua eraberritzea eta museo bihurtzea, Greorg Schurhammer dokumentazio zentroa, santuari osorik eskainitako lehena, presatzea, Xabierrako bideak hobetzea eta inguruan aparkaleku berriak eraikitzea, erromesen aterpea eraberritzea, oinezkoen eremuan argiteria jartzea eta turismo bulegoa eta foruzaingoaren bulegoa jartzea eta hornitzea.

Horrek guztiak eskatzen du Nafarroako Gobernuak inbertsioak egitea Xabierko Gazteluko eta haren inguruko azpiegitura, ekipamendu eta instalazioetan. Inbertsio horiek zazpi milioi eta erdi euro ginen dute.

Horri gehitzen zaio Mendeurreneko kultura programazio eta sustapenerako aurrekontua, hain zuzen 4.900.000 euro; horietatik milioi bat Nafarroako Kutxa Fundazioak jarri du.

Bestalde, Jesusen Lagundiak eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzak oso era aktiboan eta lagungarrian aritu dira lanean Nafarroako Gobernuak programatu eta haien parte-hartzea beharrezkoa zen ekitaldietan.

Iruña eta Tuterako Artxidiozesiak berezko programa bat diseinatu du santu nafarraren V. mendeurrena ospatzeko. Programa horrek hartzen ditu sustapena, argitalpenak eta pastoralak prestatzea eta Nafarroako elizetan eginen diren hainbat jarduera. Jarduera horien aurrekontua ez da departamentu honen eskumenekoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko Espainiako Gobernuari eskatutako laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Espainiako Gobernuak, José María Aznar jauna buru zuela, San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunen komisarioa sortu zuen otsailaren 20ko 284/2004 Errege Dekretuaren bidez. Data bereko 308/2004 Errege Dekretuaren bidez, komisario izendatu zuten Fernando García de Cortázar Deustuko Unibertsitateko Historia katedraduna. Bere eginkizunak betetzen laguntzeko, zuzendari exekutibo bat –gaur egun, Juan Pablo de la Iglesia Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziako idazkari nagusiak betetzen du kargu hori– eta kontseilu aholku-emaile bat atxiki zitzaizkion, Kanpo Arazoetarako eta Kooperaziorako Ministerioko, Kultura Ministerioko eta haren menpeko erakunde autonomoetako eta Nafarroako Gobernuako kideek osatu zuten.

Orain arte, aipatu kontseilu aholku-emaileak bost bilera egin ditu; horietatik azkena 2005eko azaroaren 28an, astelehenarekin, egin zen Xabierko Gazteluan, Nafarroako Gobernuak eskatuta. Bilera horretan Nafarroako Gobernuako ordezkariak mendeurrena dela-eta antolatutako jardueren programa azaldu zuten. Estatuko administrazio orokorrak programa horren jarduera osagarri bakarria

proposatu zuen, Asia Etxearen bitartez, eta adierazi zuen programa aztertuko zutela, Nafarroako Gobernuak antolatutako jarduerak neurri batean behintzat finantzatze aldera.

Gaur egun, Kultura eta Turismo Departamentua Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziarekin harremanetan dago, zehazteko zer jardura babestuko dituzten azkenik eta zenbat diru jarriko duen horretarako.

Bestalde, bilera hartan berriro eskatu zitzaion nazioko gobernuari Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko Legean pizgarri fiskalak sar zitzan V. mendeurrenako ekitaldiak babesten dituzten enpresentzat; izan ere, lehenago ere halaxe egin izan da interes orokorrekoak deklaraturako kirol eta kultura ekitaldi batzuekin, hala nola “Done Jakueren urte saindua”, “Salamanca Europako Kultur Hiriburua”, “Bartzelonako Kulturen Munduko Forumak” edo oraintsu ospatu diren “Salamanca 2005, Europako Plaza Nagusia”, “Munduari Bira Belauntzian” edo “Pekin 2008”.

Aipatu eskaera behin eta berriro egin zaie Carmen Calvo Kultura ministroari eta Pedro Solbes Ekonomia eta Ogasun ministroari zuzenean, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez.

Lehen aipaturiko errege dekretuen arabera, nazioko gobernuak interes berezia du V. mendeurrenako ekitaldietan; hala ere, gure eskaera ez da jaso estatuko aurrekontu orokorren legean; izan ere, lege horren arabera, honakoak dira “interes publiko bereziko ekitaldiak”: “Liebanako Urtea 2006”, bost urtean behin ospatzen dena, eta “Zaragozako Erakusketa Unibertsala 2008”, bi urtez pizgarri fiskalak jasoko dituenak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 22an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Elgorriagako bainuetxeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Elgorriagako bainuetxeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Elgorriagako bainuetxeari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Elgorriagako bainuetxearen 2000ko oinarrizko proiektuan –Manuel Enríquez Jiménezek eta beste batzuek egin zuten Sustapen Ministerioi Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintzako Zuzendaritza Nagusiarentzat– ageri den bezala, hura landu behar zuen taldeari lurzatiaren azterlan geotekniko bat eman zitzaion, 1998an Empresa Europea de Ingeniería y Servicios S.A.k egina. Haren ondorio gisa, gomendatzen da “ofiten formazioko maila azalekoenean ahokaturiko zapaten bidez zimendatzea, 3,0 kp/cm²-ko tentsio onargarriarekin 1,0-1,25 m baino gehiagoko alboak dituzten zapatentzat”.

Proiektuaren exekuzioa Sustapen Ministerioak kontratatu zuen. Nafarroako Gobernuak dirulaguntza bat eman dio Elgorriagako Udalari ministerio horren aurrean hartu dituen konpromiso ekonomikoari aurre egin ahal izateko, hain zuzen ere bainuetxea zaharberitzeko obrei ekiteari dagokionez. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du obren kontratuaren aldaketarik onetsi, eta ez dagokio hari halakorik egitea.

Irailaren 22ko 2999/2004 Foru Aginduaren bitartez, Elgorriagako bainuetxea zaharberitzeko Elgorriagako Udalak eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmeneko klausulak onetsi ziren, bai eta guztira 1.933.428 euroko gastua ondoko urteko ordaintzetei egozte ere, gobernua-

ren 2004ko abuztuaren 30eko akordioan baimendutakoari jarraituz:

– 733.428 euro, 2004. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura.

– 600.000 euro, 2005. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

– 600.000 euro, 2006. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

Aldi berean, onetsi zen Elgorriagako Udalari 676.700 euro ordaintzea, aurrerakin gisa, 2004. urterako aurrekontuaren kargura, eta ezarri zen, protokoloaren 5. klausulan bezala, laguntzaren gainerakoa aurreko puntuan ezarritako urtekoen arabera ordainduko dela, eta ordainketa ziurtagiria edo ziurtagiriak aurkeztu eta haien ordaintzearen menpean egonen dela, hartara, gutxienez ere kasuko urteko ordainketa justifikatzeko.

Turismo eta Sustapen zuzendari nagusiaren 2004ko abenduaren 31ko 1163/2004 Ebazpenaz, 2004. urteko gastuen aurrekontuaren kargura onetsitako zenbatekoaren gainerakoa –56.728 euro– ordaintzea onetsi zen.

Azkenik, Turismo zuzendari nagusiaren abenduaren 30eko 512/2005 Ebazpenaz onetsi zen urte hartako gastua –600.000 euro– ordaintzea, betiere Elgorriagako Udalak obraren exekuzioa justifikatu eta enpresa adjudikazio-hartzaileari 806.019,98 euro (4. ziurtagiritik 13. ziurtagirira) ordaindu ondoren.

Aralar parlamentu-taldeak egindako galderan proiektu-aldaketa bat aipatzen da; aldaketa horrek ez du zertan eragina izan ordaintzeke dagoen kopurua ordaintzeko garaian, ez bada gertatzen aldaketaren ondorioz obrak gerazten direla eta sinaturiko protokoloan exijitzen den obra kopururaino ez dela iristen haien exekuzioan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 22an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Berriozarko Mendialdea ikastetxean izandako gertakariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna” parlamentuko-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Berriozarko Mendialdea ikastetxean ikasle baten aitak irakasle bati egin zion erasoari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren 2005eko uztailaren 5eko 632/2005 Ebazpenak onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko plana. Plan hori ikastetxe bakoitzak, plan hori landu eta zehaztuko du, bere errealitatek abiatuta, helburuak ezarriko ditu eta berezko helburuak ezarriko ditu. Helburu horiek urteko programazio orokorrean agertuko dira.

Ikastetxeetako bizikidetasunean ematen diren arazoak, nagusiki, ikasleen jokabide okerrekin sortarazten dituzte. Gurasoek irakasleak erasotzea oso gutxitan gertatu ohi da eta kasu bakanak dira; beraz, horrelakoetan, ikastetxeetako zuzendariak eta irakasleak eman beharreko aholku-lan zuzena ikastetxeko ikuskatzailearen bidez egiten da. Horrelako egoeretan aurreikusitako neurriak dira, lehenik eta behin, eraso nozitu duen irakasleari aholkatzea epaitegian salaketa jar dezan eta, kasua bada, behar dituen aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa ematea.

Aztergai dugun kasuan, honako neurriak hartu dira egoerari konponbidea emateko:

a) Gertatutakoa jakin eta berehala, hezkuntza ikuskatzailea ikastetxera joan zen informazioa jasotzera eta ikastetxeko zuzendaritzari hartu beharreko neurriei buruzko aholkuak ematera; hain zuzen, zuhurtasunezko neurri bezala eraso-

tzaileari eta laguntzaileei ikastetxera sartzeko debekua ezarri ziezaieten, ikaslearen portaera azter zezaten arau-hausterik egin zuen jakiteko, horren arabera ikasleen eskubide eta betebeharraren arautegian aurreikusitakoa aplikatzeko, eta ikastetxeak ziurta zezan ikasleak sexua, arraza, kultura eta abarreatatik ez zirela baztertuak.

b) Hezkuntza Departamentuak ikastetxearen eta familiaren artean bitartekaritza lana egiteko batzorde bat antolatu zuen. Batzordea honakoek osatua zegoen: ikastetxeko ikuskatzailea, Hezkuntza Departamentuko Kultura-aniztasun Zerbitzuko ordezkaria, ikastetxeko zuzendaritza eta ijitoen elizbarrutiko idazkaritzako ordezkariak.

Lehenengo aldi honetan bitartekaritzak ez zituen lortu bilatzen zituen helburuak.

c) Hezkuntza kontseilariak bilera egin zuen ikastetxean Eskola Kontseiluarekin eta horien eskaerak eta kezak aditu zituen.

Hauek izan ziren bilera horren emaitzak:

– Zuhurtasunezko neurri gisa, erasotzailearen alaba sortutako tentsioa baretu arte ikastetxera ez joateko baimena ematea.

– Nafarroako Gobernuak irakaslearen defentsa juridikoaz arduratzeko erabakia hartzea.

d) Erasotutako irakasleak ikasturte bukaeran arte beste ikastetxe batean zerbitzu eginkizunetan aritzeko egin zuen eskaera onartzea.

e) Epe bat igarota eta hasierako tentsioa baretuta, neska berriro ikastetxean eskolatzea.

f) Familiaren eta ikastetxearen bitartekaritza egiteko batzorde berria antolatzea, Sekretariado General Gitano Fundazioko espezialisten parte-hartzearekin, neskak klaseak normaltasunez jaso zituzan eta aitak erasotutako irakasleari barkamena eska ziezaioten. Oraingo honetan batzordeak bilatzen zituen helburuak lortu zituen.

Aipatu ebazpenak jarduketara protokolo bat ezartzen du, ikasleek ikastetxeetako bizikidetasunean sortarazitako arazoak konpontzeko.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua eta Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako zerbitzua lanean ari dira eskola-komunitateko beste kide batzuek bizikidetasunean sortaraz ditzaketen arazoaren aurrean protokolo bat garatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Erresuma baten aroa” erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Erresuma baten aroa erakusketa osatzen duten 270 piezen hautaketa eta hari buruzko diskurtso museografikoa erakusketaren komisarioa den Isidro Bango Torviso jaunak –Madrilgo Universidad Complutenseko Artearen Historiako katedraduna– egin ditu.

Pieza guztiak hautatzeko erabili diren irizpideak historikoak, artistikoak edo/eta dokumentalak

izan dira. Aralarko erretaula hautatu da bere berezitasunarengatik eta adierazgarritasunarengatik, zeren eta erakusketako eta dagokion garaiko soslai osatzeko funtsezko pieza bat baita.

Erakusketako pieza guztiak enbalatzea eta garraiatzea horretarako deitutako lehiaketa publikoaren enpresa adjudikazio-hartzaileak, hau da Manterola División de Arte S.L. enpresak, egin ditu, 189.159,09 euro kobratuta, kopuru orokor eta ez bereizgarri gisa. Dirua Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioak ordaindu du.

Piezak laga dituzten entitateetatik –haien artean, Iruña-Tuterako Artzapezpikutza dago, hain zuzen ere Aralarko San Migelgo erretaularen arduradun eta titularra– bakarrak ere ez du eskatu kalte-ordainik piezak lekualdatzeagatik. Esan beharra dago 20 egunetan 7.500 bisitari baino gehiagok begietsi dutela obra hori.

Bestalde, bai Aralarko San Migelgo parrokoak, bai kofradiako lehendakariak uneoro lagundu diete erakusketako arduradun eta antolatzaileei.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroaren esportazioak murrizteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak Nafarroaren esportazioak murrizteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Nafarroaren esportazioak murrizteari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

1. galdera.

Parlamentariaren galderan esportazioen gaia aipatzen da; gai hori nahitaez hartu behar da kontuan erregioaren egoera ekonomikoa aztertzeke garaian.

Hala eta guztiz ere, deigarria da egindako galderaren ardatz bakarra joan den urteko hilabete jakin bat izatea. Bistan denez, guztiz desegokia da halako konplexutasuna duen gai bati buruzko gogoetak epe oso mugatu bat hartuta egitea, hilabete baino ez.

Ohikoa denez, Nafarroako Gobernuak urtean behin, edo, gehienez ere, sei hilez behin, egiten ditu erregioaren esportazio-jarduerari buruzko balantzeak. Esportazioei buruz hitz egiteko garaietan, azpimarratu beharra dago, jarduera ekonomikoarekin loturiko beste gai askorekin gertatzen den bezala, joerak zehaztu behar direla, eta horretarako nolabaiteko iraunkortasun bat behar dela.

Edozein modutan ere, azaldutakoarekin bat datorren parlamentu-ekimenari erantzuna emate aldera, honako gogoetak egin daitezke:

- Irailean, urtero, esportazioei dagokionez, joera desorekatua izaten da, zeren eta oraindik ere ez baita guztiz egonkortu udako hiletan mantsoeturiko jarduera ekonomikoa.

- 2005eko bilakaerari dagokionez, lehenbiziko hamaika hilabetetan Nafarroako urtetik urterako esportazioek % 3,3 egin dute behera.

- Garraio materialaren garrantzi erlatiboak behera egin du –automobilaren sektoreari lotuta dago– eta guztizkoaren % 48tik behera jarri da. Horrek berekin dakar gainerako sektoreetako esportazioak garrantzia hartzen joatea, eta hori bat dator Nafarroako Gobernuaren politikarekin; alegia, ekonomiaren jarduera produktiboa eta esportaziorako produktuen oinarria zabaltzeko politikarekin.

- Helmugei dagokionez, Europarako esportazioek garrantzi erlatiboa galdu dute; guztizkoaren % 86ra iritsi da, 2005eko urrira arteko datuei erreparatuta. Horrek esan nahi du halako dibertsifikazio bat gertatzen ari dela esportazioen helmugetan, eta hori ere foru administrazioak aplikatzen duen lan ildoetan sartzen da.

- Halaber, % 37,4 hazi dira, azarora arte, Estatu Batuetara esportatzen diren produktuak, nahiz eta haien garrantzi erlatiboa % 3,9an dagoen. Asiarako salmentek % 25,1 egin dute gora.

2. galdera.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak ondoko helburu estrategikoak dauzka:

- Enpresa berriak esportatzen has daitezen sustatzea.

- Nafarroako enpresa txiki eta ertainen esportazioak sendotzea.

- Esportatzen duten enpresa txiki eta ertainen merkatuen dibertsifikazioa laguntzea.

Lehenbiziko helburuari dagokionez, hura lortzera bideraturiko ekintzak egingen dira.

- PIPE programan parte hartzea. Esportazioan hasteko programa bat da, eta hartan ICEXek, merkataritza ganbarek eta autonomietako gobernuek parte hartzen dute. Tutoretzapeko prozesu bat da; hartatik Nafarroako 184 enpresa igaro dira 1997tik.

- Sektoreetako esportazio gaitasunari buruzko azterketa. Azterketa horrek azken bi urte hauetan enpresetara eginiko 135 bisita biltzen ditu. Bisitaren ondoren, txosten bat igortzen zaie enpresa horiei, eta hartan orientabide batzuk ematen zaizkie beren egoeran nazioartera ateratzeko formula egokiena aurkitu dezaten.

Nafarroako enpresa txiki eta ertainen esportazioak finkatzeari dagokionez, ekintzak zuzentzen

dira, nagusiki, produktuak eta zerbitzuak kanpoan promozionatzeko erraztasunak ematera.

– Promex hastapenerako laguntza programa beren salmenten bolumenean esportazioen bolumenak % 30 gainditzen ez duen enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago. Era askotako kontzeptuetarako dirulaguntzak ematen dira: zabalkunde materiala atzerriko hizkuntzatan egin, atzerriko hedabideetan publizitatea jarri, produktuak atzerrian homologatu, azoketan eta prospekzio bidaietan parte hartzea. 2005ean, bide horretatik, 108 enpresari eman zaie laguntza; enpresa horiek 743.478,54 euro jaso dituzte.

– Nazioartera ateratzeko laguntzen zerbitzu programa, zeinarekin laguntza ematen baita merkataritza-misioetan parte hartzeko, negozioen sustatzaileak kontratatuzko, aldi baterako kudeatzaileak kontratatuzko eta abarretarako. 168 enpresek jaso dituzte laguntza horiek; guztira, 466.631,56 euro.

Esportatzen duten enpresa txiki eta ertainetan merkatuaren dibertsifikazioa laguntzeari dagokionez, eskaintzen diren laguntzak sustapen ekintzak zein herrialdetara bideratzen diren horren arabera graduatuta daude. Hartara, Nafarroako esportazioak kontzentratzen diren merkatuetarako laguntzak %

25ekoak dira; % 60raino iritsi daitezke, berriz, lehenetsuneko helmuga gisa hartzen diren herrialdeen kasuan.

– Dibertsifikaziorako Promex programa, beren esportazio bolumenak salmenten bolumenaren % 30 gainditzen duen enpresa txiki eta ertainei zuzendua. Laguntzetarako kontzeptuak Promex hastapenerako programaren berak dira, baina helmuga batzuei lehenetsuna ematen zaie, dirulaguntza-ehuneko handiagoak emanaz. Dirulaguntza ematen da soilik enpresa bakoitzek hiru herrialde sustatzeko.

2006ko ekitaldirako aurreikuspenen arabera, Nafarroako ekonomiaren jarduerarekin bat, esportazioak beren onera etortzeko prozesua hasiko da, automobilen sektorean eginiko hobekuntzen ondorioz eta esportatzeko gaitasunaren dibertsifikazioaren eta hazkuntzaren ondorioz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez besteko soldatari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Elma Sáiz Delgado andreak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko gizon eta emakumeek deklaraturako urteko batez beste-

ko soldatari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

2005eko urriaren 6an, "Socialistas del Parlamento de Navarra" taldeari atxikitako Aurelia Lumbreras andreak galdera egin zuen lansarien inguruan egiten diren estatistiketan sexuaren aldagaia sartzeari buruzko Parlamentuaren erabakia betetzeko Nafarroako Estatistika Institutuak hartu zituen neurriei buruz.

Galdera horri erantzunez (orduko erantzuna erantsi dugu), jakitera eman genuen Nafarroako Estatistika Institutuak berez ez zuela horrelako lanik egiten, eta zegokion foru legean onetsitako estatistika planak Estatistikako Institutu Nazionalak egindakoak zirela.

Lan horietan sexu aldagaia egiturazko estatistiketan baino ez da agertzen; estatistika horiek lau

urtetan behin egiten dira eta azkena 2002. urteari zegokiona izan zen.

Halaber, inkesta koiunturaletan, hiru hilez behin egiten den laneko kostuen indizean, aldagai hori erregistro administratiboak erabiliz sartzeko egindako lanari buruzko informazioa eman genuen; zehazki, erabiliko dira Gizarte Segurantzako afiliatuen zerrenda eta Tributu Agentziak duen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikitzaileen fitxategia. Informazio hori eman ziezaioten, Estatistikako Institutu Nazionalak akordioak egin ditu Gizarte Segurantzarekin, Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziarekin eta Nafarroako Estatistika Institutuarekin. Horretarako, probak egin dira 2002ko soldatei buruzko inkestaren datuekin, eta emaitza hona izan dute.

Lehen aipatu dugun erantzunean, honako hau esan genuen: “adostutako plangintzaren arabera 2006ko bigarren hiruhilekoan 2004ko informazioa eskaintzea espero da. Honek Nafarroa ere barne hartuko luke”. Hortaz, oraindik, ezinezkoa da 2004. urteko soldatei buruzko informazioa ematea gizonak eta emakumeak bereiziz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: aipatutako erantzuna 2006ko apirilaren 30eko 27 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean dago argitaratuta).

Galdera, soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du soldatako langileak dituzten autonomoen ehunekoari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Gizarte Segurantzaren afiliatuak dauden langile autonomoen erregistroa Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren eskumena da.

Estatistikako Institutu Nazionalak enpresarekin lotutako zenbait datu eta inkesta ematen ditu, bere web orrian eskura daudenak (www.ine.es).

Egindako galdera honetan aipatzen diren gaiak ez dira Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren eskumena; beraz, ezin dugu bestelako jatorria duten datuak ofizialki eman.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Nafarroako Gobernuko lehendakariak herriaren eguna Xabierren ospatzeari buruz udal guztiei igorritako gutunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du V. mendeurrena dela eta, Xabierren ekitaldiak antolatzen dituzten udalei dirulaguntzak emateari buruz. Hona hemen

Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du dirulaguntzarik emanen San Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena dela eta, udalek Xabierren antolatzen dituzten "herriaren egunak" ospatzeko.

Orain arte, Nafarroako hogeita bat udalek baieztatu dute San Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrenako ekitaldietan parte hartuko dutela bisitaldi instituzionalen bidez. Logikoaenez, udal horietako ordezkarietzi harrera egin eta lagunduko diete ekitaldia antolatzen duten entitateen ordezkarietzi: Nafarroako Gobernuak, Jesusen Lagundiak, Iruñea eta Tuterako Artzapezpikutzak eta Xabierko Udalak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko martxoaren 2an

Lehendakaria, Miguel Sanz Sesma

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	